

Araitz | Betelu | Larraun | Lekunberri

# MAILOPE

250

2017ko iraila

TOKIKOM



ETA UDAREN ONDOREN...  
INDARBERRITURIK GATOZ!

## PALAZIO ETXEKO ITSAS PINUA

Bazkalondoren, Batzarreko balkoira ateratzeko denboraldia hasten denean, atera eta aurrean ditudan mendiak miresten ditut, Aralarreko mendiak.

Laino denean, nire begiak berdeguneetara begira gelditzen dira, Malloak ez dira ikusten, baina nire aurrean beti itsas pinu bat ikusten dut. Gainontzeko pinuekin alderatuta ezberdina da. Bere adaburua zabala da, ez da bailaran ikusten diren gainontzeko pinuak bezain altua.

Urte asko daramatza Palazio etxearen ondoan. Ez dakit nork landatu ote zuen, Gregororen aitona edo birraitona akaso. Baina begiratzen diodanean lilurgarria iruditzen zait. Iluntz txoriak bere magalean lo egiteko pausatzen entzuten ditut bertan eta kumatze denboraldian pikaartzak bertan euren habia jartzeagatik borrokan ibiltzen dira. Egun batean bota egingo zutenaren berri iritsi zitzaidan, eta gaixorik egonen zela pentsatu nuen. Baina nik berdin ikusten dut, kolore berde ilunarekin eta gaixotasun zantzurik gabe.

Baina noski, ni ez naiz aditua, ez zuhaitz ezta naturan ere. Baina behatzea gustatzen zait. Gero esaten didate ez dela hemengo zuhaitz bat eta horregatik inork ez duela botatzeko eragozpenik jartzen.

Pentsatzen geldituz gero, animalia batek zortea izan lezake eta ihes egin dezake, baina zuhaitzek ezin dute korrika atera. Egia da, hazien bitartez ugaltzen ahal direla, baina ez dut uste hori denik itsas pinu honen etorkizuna, hain zen ederra!!

Orain balkoira irteten naizenean, eseri eta paisaia behatzerakoan ez dut ikusten, bota egin dute. Pentsatu nahi dut bere izpirituak Aralarreko mendizerra osoan zehar jarraitzen duela, urte askotan zehar bere magalean hartu zuten mendi.

Txaro Garate Esnal

## PP ALDERDI BURUTSUA

Denok dakigu Espainiako PP izeneko alderdi politikoko buruzagiak zeinen burutsu, adimentsu, buruargi eta azkarrak diren. Hori ez dugu inola ere zalantzan jartzen. Horrexegatik, niri oso harrigarria suertatzen ari zait ikustea nola sartzen ari diren hanka iztarteraino Altsasuko kasuan, beren Guardia Zibil, Polizia Nazional eta kristo guztiarekin, alegia, terrorismo talderik ez dagoen lekuan terroristak ikusten dituzte, ordu txikietako taberna bateko liskar bat terrorismo ekintza batekin nahasten dute, inplikaturako gazteak epaitu baino lehen dagoeneko zigortu dituzte (non ote dago beraien errugabetasun-presuntzioa?) eta orain, diotenez, "Altsasukoak aske!" esatea edota idaztea legez kanpoko omen da, eta inortxok ere ez genuen horren berri arrastorik ere. Halaber, Espainiako polizia indarrak Euskal Herritik eraman ditzaten eskatzea ere orain egundoko lege-haustea omen da; guztiz ulertezina, dakigunean, konparaziora, Euskal Autonomia Erkidegoko bere Autonomia Estatutuan erabat legezkoa dela.

Bai, hasieran esan dudana bezalaxe, denok dakigu PPko buruzagi batzuk oso zentzudunak direla, baina, azken bolada hon ez dakit zer txoro-haizek edota zein deabruzko intsektuk ziztatu dituzten, halako zentzuga-bekeriak, aldrebeskeriak eta ankerkeriak egiteko.

Antza denez, hain zuzenak eta santuak diren PPko buruzagi horiek ez dira konturatzen gorrotoa zabaltzen ari direla, eta, berebat, basakeriak eta gaiztakeriak egiten ari direla zuzentasunaren izenean, batzuk beste batzuen atzetik, eten gabe, ohartu gabe, konturatu gabe, eta, noski, nahi gabe.

Argi dago, PPko buruzagi batzuk aingerutxo hutsak dira!

Xanti Begiristain Madotz

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net)-era hilaren 20a baino lehen.

MAILOPE!  
LAGUNDU MAILOPE!  
LAGUNDU MAILOPE!  
LAGUNDU MAILOPE!

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?  
[mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net)



**CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.**  
ZURGINTZA OROKORRA  
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI  
Telefonoa eta Faxa: 948507343  
[carpinteria@carpinteriaazpiroz.com](mailto:carpinteria@carpinteriaazpiroz.com)

**OGI-BERRI ALTZA**  
Aralar kalea, 41  
Lekunberri  
  
**OGI BERRI**  
OKIN ARTISAUAK 948604884

 **FISIOTERAPIA**  
Andoni Ayerdi Olascoaga  
609 536 002 · 948 604 789

Iturritak kalea 7, 31870 Lekunberri  
[andoniaofisioterapia@gmail.com](mailto:andoniaofisioterapia@gmail.com)

**AURRERA  
TABERNA  
ARALAR, 15  
948 60 47 24**

**TAXI  
SOROA  
609 168 217  
Bederatzi plaza**



06



16



20

04 ESKOLATIK MAILOPERA

05 BERTSO BERRIAK: Joxe Mugiro.

06 ELKARRIZKETA: Mauricio Huici.

09 NOR DA NOR

10 MOKOKA

11 KUXKUXEAN: Iraileko zorion agurrak.

12 BATZARRE

14 LUZE ETA ZABAL

16 ERREPORTAJEA

20 KULTURA: Festaz festa.

22 ELKARRIZKETA: Garazi Martirena.

24 KIROLA: Krosa, pilota txapelketa eta ikasturteko iharduerak.

26 HITZ ASPERTUAN

27 KLIK EGIN: Musixmatch.

28 PLAZATIK PLAZARA: Arribe.

31 AGENDA

**• MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRI:**

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

**• ARGITARATZEN DU:**

Mailope Kultur Elkarteak.  
L.G.: NA 719/93  
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.  
[issuu.com/mailopealdizkaria](http://issuu.com/mailopealdizkaria)

**• ERREDAKZIOA:**

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ainhoa Iriarte, Itziar Luri, Arantxa Mikeo, Nerea Urbizu eta Andoni Tolosa.

**• ARGAZKIAK:**

Labrit, Ricardo Bosch, Juan Antonio Garaikoetxea, Agurtzane, Eider Irastortza, Esti Gastesi, Garazi Martirena, Sorgintxo Haur Eskola, Itziar Gastesi, Kristina Askarai eta Unsplash.

**• PUBLIZITATEA:**

Labrit Multimedia - 948 210 103 - [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net).

**• MAKETAZIOA:** Araitx Amatria.**• TIRADA:** 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, Kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno de Navarra

**LABRIT**  
MULTIMEDIA



## Irailaren 1ean irekiko du Larraungo AEK-k ikasturte berriko matrikulazio epea

Ikasturte berriarekin batera Larraungo AEK-k euskara ikasteko eskaintza zabaldu du. Irailaren 27an amaituko da matrikulazio epea, baina bertako irakasleek gogorarazi digute urteko edozein momentutan dagoela euskara ikasten hasteko aukera.

Hasiera mailatik EGA titulura arteko maila guztiak eskaintzen dituzte eta aurtengo ikasturtean Sakontzen taldeak ere izanen dira. Bea: *"Ikasle askok EGA gaindituta ere edo euskara maila ona izanik ere ikasten jarraitu nahi dute, hobetzen eta ziurtasuna lortzen. Joan den ikasturtean jendea horren bila hurbildu zen eta jendeak hori eskatzen badigu eskaini egin behar diogu eta horretarako ikastaro mota berri hau diseinatu dugu".*

Maila ezberdinetako taldeez gain, autoikaskuntza ere eskainiko dute, tutoreen bidez kudeatzen den ikastaroa eta Mintzakide programarekin ere jarraitzeko asmoa dute.

Aurten gainera, egoitza berria es-treinatuko dute AEK-ko ikasleek. Joan den otsailean egin zuten aldaketa. Larraungo udaletxe azpiko egoitza utzi eta Lekunberriko Artzanegi kaleko 6. zenbakiko egoitzara pasa ziren, baina irailaren 15ean egingen dute inaugurazioa. Egun horr egingen duten ekitaldira, ikasleak, eragileak, ordezkariak eta zuzendaritzako kideak gonbidatuko dituzte.

Aspaldi gelditu zitzairen txikia beste bulegoa. Pixkanaka geroz eta ikasle gehiago dituzte eta bertatik bideratzen dituzte ere Olague, Ultzama, Odieta eta Atetz bailarako ikasle taldeak. Egoitza berrian bulegoaz gainera, hiru gela dituzte.

Euskara ikasteko diru-laguntza deialdia ere zabalduko dago jada irailaren 15era bitarte (zehaztapenak Iragarki taulan).

*Informazioa eta izen-ematea:*  
948 60 47 04 edo 607 622 102.  
larraun@aek.eus - Artzanegi kalea, 6 (Lekunberri).



eskolatik  
mailopera

GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70  
www.tanatoriosirache.es

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-  
LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

**urrutia**  
enea

etxeko hestekiak

**LEKUNBERRI**

**OTXOTORENA**  
okindegia

**ARRIBE**

**ADIII! TLF BERRIA:**  
948 51 30 32

panaderia okindegia  
**GALBURUeco**

*Egurrezko laborezko ogi ekologikoa*

Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870  
948 50 40 42



## AZIENDA AUTOBIDEAN

Asko izan dira azkenaldian Gorritin autobidera atera diren aziendak. Nafarroako Gobernua-ri bidean parrilak jartzeko eskaera egin arren, Gorritiko Kontzejuak ez du laguntzarik jaso eta kontzejuak berak jarri du aziendari pasabidea saihesteko parrila.



## UDAL ERAIKIN BERRIA

Hasiera batean uda hon aurreikusten zuten La-rraungo udaletxeko zerbitzuak eta bulegoak eraikin berrira lekualdatzea, baina lanak luzatu egin dira eta oraingoz beste hiru hilabete be-hintzat itxaron beharko dituzte udal langileek lantoki berrian aritzeko.



## MAILOPE BIDAIRIA

Mikel Betelu lekunberriarra Bolivian ibili da abuz-  
tuan zehar askapeneko brigadista gisa. Ez zuen  
gure aldizkaria etxean ahaztu eta La Higerarai-  
no eraman zuen. Horra hor Ernesto Che Guevara  
hil zuten tokian ateratako argazkia. Aurtengo  
urrian 50 urte beteko dira Kubako Iraultzako ko-  
mandante ezaguna hil zutela.


# bertso berriak Mailoperi jarriak: Joxe Mugiro (Aldatz)

### **Herriaren taupada jendearen hitza.**

*Amets baten doinua  
dugu hitz bakoitza,  
ongi kudeatzeko  
daukagun bizitza,  
behar den toki  
entzungo balitza.*

*Egungo gazteria  
zarete **gaztea**,  
izan nahi baduzue  
herri bat **askea**.  
Lehendabiziko gauza  
lanean **hastea**,  
ta ez da komeni nondik  
gatozen **ahaztea**.*

Doinua: Kantatzera nijoa



### **Felipe Uriarterentzako puntua:**

Mendian ta bizitzan  
nahi dugu gorena.

### **Oinak:**

Elurra, bildurra, gailurra, agurra.

# Artxuloako zapataria

*Mauricio Huicik 82 urte ditu orain eta 37 zituen arte zapataria izan zen. Lekunberriko Artxuloan jaioa, hamabi senideetako laugarrena zen bera. Aitona eta aita ere zapatariak zituen eta eskuz egiten zituzten garai hartako oinetakoak. Oraindik gorde-ta ditu burdinezko guraize handiak, zorrozteko harria, iltzeak eta mailua.*

## **Mauricio, zu oso gazte hasi zinen zapatari lan...**

Bai. Hamabi anai-arreba ginen, bederatzi anai eta hiru arreba eta gazteena jaio eta egun gutxira aita hil egin zen 52 urterekin. Nik 17 bat urte nituen orduan.

## **Etxean bertan egiten zenituzten?**

Bai, beheko solairuan. Nire aita eta aitona ere zapatariak ziren. Aitona Sakanatik etorria zen, Olaskoagaren etxean bizi izan zen hasieran eta gero Artxuloara joan ziren bizitzera. Gure aita, Antonio Huici, han ezagutu genuen lanean. Ama Mugi-rokoa zen Auzeneakoa, Marcelina Astiz.

## **Beraz aita hiltzearekin hasi zinen lanean...**

Bai, ordurako aitari tailerrean lagun-

*“Zapatariok oso gutxi irabazten genuen eta gainera erdia ez genuen kobratzen”*

du egiten nion. Oso gazte zela utzi ginduen. Iruñean lurperatu behar izan genuen, ez genuelako Lekunberri-rrira ekartzeko dirurik. Ama hamabi seme-alabekin eta mailu eta iltze batzuekin gelditu zen gaixoa. Ni anai laugarrena nintzen, bi anaia zaharragoak fraide joan ziren. Eta ni hamahiru urterekin eskolatik botaz geroztik tailerrean nenbilen.

## **Eskolatik bota?**

Barbonean mojen eskola geneukan eta azken bi urteak han egin nituen, Sor Juana eta Sor Abelinarekin. Behin ni baino urtebete zaharragoa zen neska batek papertxo bat pasa zidan klasean, nire neskalaguna izan nahi zuela esanez. Nik ere gustoko nuela erantzun nion, baino Sor Juanak harrapatu egin zidan papera atzera pasatzen eta besotik heldu eta etxera eramanez. Hortxe bukatu ziren nire ikasketak! Eta egia esan, oso ikasle ona nintzen, matematik eta geografian batez ere.

## **Aitaren faltan nola jarraitu zenuen herritarrei oinetakoak saltzen?**

Nik asko nuen ikasteke eta Anastasio Donazar zapatariak erakutsi zidan. Roncalesan ibiltzen zen Patricioren aita zen. Askok gogoan izanen dute Patricio, hemengo neska guztiak bere atzetik ibiltzen ziren, oso planta onekoa eta jatorra zen. Bere bitartez Anastasio etxera ekarri genuen eta asko ikasi nuen berarekin. Zortzi hilabetez izan genuen etxean. Berak



Mauricioaren aita eta aitona ere zapatariak izan ziren. Arg: Labrit.

esandako hitz batzuk ez zaizkit inoiz ahaztuko: "Zapatero última palabra del credo" (Zapataria kredoaren azken hitza) eta arrazoi zuen. Gero, 37 urterekin Leitzako paper-fabrikari hasi nintzen.

### Zergatik zuen arrazoi?

Zapatariorik oso gutxi irabazten genuen eta gainera erdia ez genuen kobratzen. Bezeroek askotan esaten zizuten: "Aizu, saltzen dudanean or-dainduko dizut!! Eta oraindik ez dute hil..." [Kar, kar, kar]. Zor zidaten guztia koaderno batean nuen idatzita, 40 pezeta batek, 60 pezeta besteak... Garai hartan diru asko zen. Nik hemendik Aldatz eta Uitziko herritarrei eskerrak eman nahiko nizkieke, bizitzan izan ditudan bezerorik onenak izan direlako. Horiek ez zidaten inoiz zorrik utzi, hangoak ziren nire bezerorik onenak. Gero bizi maila igo ahala, oinetakoak ere garestitzen joan ziren, 160 pezeta balio zituzten botak eta nik 340 pezeta ere saldu izan nituen. Baina batzuek ez zuten dirurik. Pentsa! Lekunberrin baziren hilabeteetan jatekoaren eta duro baten truke lan egiten zuten morroiak. Horiek ezin zuten bost pezeta horiekin botak erosi.

### Eta garai hartan, zeintzuk ziren egiten zenituzten oinetakoak?

Neurrira egindako bortzegiak batez ere. Azpian iltzeak zituzten horietakoak. Oinetakoa larruzkoa zen eta azpian hiru ilara iltze jartzen genizkien. Eta bestelako zapaten konponketak ere egiten genituen. Jende gehiena espartinekin eta larruzko botekin ibiltzen zen. Espartinak udaletxe ondoko etxean saltzen zituzten. Hemen ez nuen ezagutu espartinak egiten zituen inor. Nik 32 urte nituenean oinetakoak egiteko lantegi handiak irekitzen hasi ziren eta zapataria desagertzeko hasi ziren.



Oraindik gordeak ditu zapatak konpontzeko erabiltzen zituen tresnak.  
Arg: Labrit.

Baina aurretik oso urte onak izan genituen. Gure etxean aldi berean, lau zapataria ezagutu nituen lanean. Hiru bota egiten zituzten egunean. Miguel Gallego "Zapaterico" izeneko batek ere gure etxean egin zuten lan. Hori korrika, aizkoran eta apustu mota guzti aritzen zen. Galdu egiten zuten beti, baina oso indartsua zen.

### Nongo bezeroak zenituzten?

Huescara ere bidaltzen genituen botak. Biescas herrian Marcos Abadias izeneko zapata dendari bati saltzen genizkion. 50 pare bota erosten zizkigun aldiko. Bailarako herritarrez gain, Tolosatik eta Donostiatik ere jende asko etortzen zen botak erostera. Bilboko Seve Peña izeneko bat ere gogoan dut. Ayestaran Hotelera etortzen zen bere bi arrebeekin eta Aralarrera oinez igotzen ziren askotan. Haiek beti artilezko galtzerdi lodiekin ibiltzen ziren, bai neguan eta baita udan ere. Mendizaleak ziren.

### Eta botak egiteko zein material erabiltzen zenuten?

Larrua. Iruñeko Curtidos Ayestaranen erosten genuen. Txekor-larrua erabiltzen zen.

### Nola egiten zenituzten larruzko



Guraizeak eta zorrozteko harria. Arg: Labrit.

*"Aldatz eta Uitziko herritarrak inoiz izan ditudan bezerorik onenak izan dira"*

*“Nik egun bat eta erdi behar izaten nuen bota parea egiteko”*

#### **bota haiek?**

Lehenbizi moldea egiten zen eta horren gainean larrua jartzen zen. Gero larruzko zola jarri eta azpian gomazko geruza bat jarri ohi genion. Baina hasieran gomarik ez zegoenean, iltzeak jartzen genizkien azpian. Dena eskuz josten genuen. Nik egun bat eta erdi behar izaten nuen bota parea egiteko, nire aitak berriz hamalau ordutan egiten zuen parea, gelditu gabe. Hamabi seme-alaba zituen eta lan asko egiten zuen.

#### **Paper-fabrikan lanean hasi aurretik atzerrian ere izan zinen...**

Bai. 27 urte nituenean, Parisera joan nintzen lanera. Etxean zeuden anai-arreba guztiak nire kontu bizi ziren eta bizitza horrekin zer irabazirik ez nuela konturatu nintzen. Emigrazio-zio-ko zerrendan izen eman nuen eta hasieran ez nekien Alemaniara edo Parisera bidaliko ote ninduten. Azkenean Parisera joan nintzen, han arreba bat bizi zen eta bere laguntzarekin frantsesa ikasi nuen. Bertako garraio zerbitzuarentzako egiten nuen lan. Lau urte egin nituen han. Bertan ezagutu nuen ere nire emaztea, Tere Berrozpe. Berarekin hona bueltatu eta ezkondu egin ginen. Eta handik

urte batzuetara Aintzane ekarri genuen, bost hilabeteko neskatoa. Begi handiak zituen eta oso polita zen, lehenengo egunetik maite-mindu-ninduen. Parisetik etorri eta bost urte gehiago eman nituen zapatari lan. Terek asko laguntzen zidan josten. Baina, ondoren lantegian hasi nintzen lanean.

#### **Bezero berezi bat ere izan zenuen zuk, Mauricio...**


Bai. Lekunberrin, Antonean, pelikula bat grabatzen ibili ziren. Eta Francisco Rabalek hirutan ekarri zizkidan zapatak konpontzera. Nik tailerrean anaia fraideetako batek bidalitako argazki bat nuen par zintzilik. Ava Gardnerren argazki bat zen, biluzik. Ama garrasika hasten zitzaidan ikusten zuen bakoitzean eta oihal batekin estalita izaten nuen. Tarteka mutilak hura ikustera etortzen ziren. Franciscok ikusi zuenean, harrituta gelditu zen, argazki hura lortzea ez zela batere erraza eta ea salduko ote nion. Azkenean, harrek eraman zuen eta dirutza ordaindu zidan gainera!



Artxuloan jaio zen Mauricio eta etxe azpian zuten zapatak egiteko tailerra.  
*Arg: Labrit.*



# Nor da Nor?



Aurreko alean kaleratutako argazkia Gaintzako herri lasterketa batean ateratakoa da. Hona hemen identifikatzen lortu ditugunak:

Mila Otamendi (62), Txus Goikoetxea (36), Pablo Goikoetxea (35), Joakin Lopetegi (8), Juan Carlos Buldain (22), Rufino Buldain (19), Angel Rekalde (5), Juan Martin Martinikorena (24), Felix Lopetegi (17), Peio Rekalde (21), Joxe Otermin (9), Ander Arraztio (25), Mikel Rekalde (18) eta Otermin (10).

nor da nor?

# Nor da Nor?



*Nortzuk azaltzen dira argazkian?  
Non ateratakoa da?  
Noiz ateratako argazkia da?*

Bidali iezazkiguzu zure argazkiak denon gozamenerako mailope@labrit.net helbidera edo 638 652 339ra deitu eta kudeatuko dugu.

 **ALIPROX**  
Lekunberri  
*janaridenda*  
hamabostaldi  
eskaintza bereziak

*Iñigo Garaioa*  
**MARGOLARIA**  
 696 658 288  
**LEKUNBERRI**

**IORTIA** LIJINA DITZETA | HORTZ BERTIKA  
Juanjo Gaite García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317  
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591  
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005  
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69  
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·  
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

**SK** **SUAKONTROL LEKUNBERRI**  
*Suaren kontrako plakak*  
Oztegin kalea 25,  
Lekunberri  
948 60 48 96 (Tel.)  
948 60 45 16 (Faxa)  
suakontrol@grena.es  
www.grena.es

## Bidaiak bueltan dakarrena



●● Andrea Etxarri

Aupa Pello! Zer moduz joan da uda? Espero asko gozatu izana eta ikasturtea hasteko energiari tope eta zergatik ez, gogoz egotea. Eta zerk bete gaitzake ba energiari? Ziur aski hau irakurtzen ari diren askok bere bidaiatxoan egin izan dute pasa diren bi hilabete hau: batzuk urrutira, beste batzuk gertuko herriren batera, edota etxetik gertu duten eta ezagutzen ez zuten txokoren batera. Horr emandako denbora ere ezberdina izango zen, batzuek hilabetetik gertu, beste batzuek astetxoa, egun pasa joan direnak ere egongo ziren... Eta hau izan daiteke askorentzat egunerokora energiari bueltatzea lortzen duen antidotoa.

Bidaiatzearen onurek gure osasun fisiko eta emozionalen zuzenki eragiten dutela askotan entzun izan dugu. Baina, zergatik? Ikerketa batean honakoaz jabetu ziren: gure zorientasuna ez dagoela gure ogasun material oinarrituta, guretzat garrantzitsuak diren oroitzen eta esperientziak baizik. Ez diot, gauza materialek bapatekoan emozioa eta poztasuna sortzen ez dutenik, baina inbertsio hobea da dudarik gabe gure barrena aberastuko duten memoriez betetzea. Ezta? Eta bidaiak, argi dago, honen barruan sartuko liratekeela. Baina, has gaitezen arakatzeko...

Lehena, errutina eta betikoarekin haustea. Eguneroko arazo eta eginbeharretatik urruntzeak gure burua oxigenatzea eta gauzak beste modu batez ikustea laguntzen du. Atentzioa, tentsioa jeitsi eta zure buruari denbora oparitzean datza, sentsazio atseginak gorputzean sartzeko hesiak kentzea. Bigarrena, konpartitzea. Bidaiatzeak esperientzia konpartitzea dakar, bai norbaitekin bidaiatzen baduzu, bai bertan erlazioan bazara, baita gero norbaiti kontatu nahi badiozu ere. Honek besteekin konexioan sentiarazten zaitu. Hirugarrena...

Ea, zuk jarrai dezazun proposatzen dizut. Eta zuek, ez duzue zertan urrutira joan behar. Bidaiatu, ondoan dagoen mendi magalera bada ere. Sentitzen al duzu?



●● Pello Azpirotz

Kaixo Andrea! Uda ederra pasatu ondoren iritsi da garaia berriro ere kurtsoari hasiera emateko, errutinara buelta. Bidaiatzeko aukera izan dut, energiari beterrik ekingo diot kurtsoari; hala ere, udak zertxobait gehiago iraungo balu ez nintzateke kexatuko.

Ben beharrezkoak iruditzen zaizkit oporrak eta bidaiatzea (urrutira, hurbilera, denbora askorako, denbora gutxirako...), urtean zehar bizi dugun "ohikotasun" horretatik ihes egiteko. Ni behintzat saiatzen naiz ahal den heinean, geldirik ez egoten eta denbora ahalik eta hobekien aprobetxatzen bidai batean nagoeanean. Uda bukatzen denean, bizitako momentu edo esperientzien errebaso bat egiten hasi eta irribarrea aterarazten dizuten momentu horiek ditut nik bereziki gustuko.

Zuk proposatzen dituzun errutina hausteko eta gainontzeekin konpartitzeko aukerei gehituko niokeen beste gauza garrantzitsu bat inprobisatzeko aukera izango litzateke. Funtsezkoa da niretzat inprobisatzeko aukera izatea bidaiatzen ari naizenean. Ez zaizkit gehiegi gustatzen guztiz loturik dauden bidaiak.

Bat-batekotasunaren zalea naiz, gustuko leku berri bat ezagutu eta denbora gehiagorik gelditzea, hasierako asmoak aldatzea, inguru ezezagunak bisitatzea, ezaguna duzun leku batean ohiko planak egin ordez ezohikoak egitea... Baina, udako errutinaren parte diren egiteko batzuk ere gustuko ditut: lagunekin zerbait hartu eta lasai egotea erlojuari kasurik egin gabe kontu kontari, kontzertu desberdinak ikustera joatea, ohiko leku bainatzea... Azken finean, bidaiari esker, era askotako momentuekin (sinpleak, konplexuak, besteekin, bakarrik...) betetzen dut nik nire "motxila" ikasturte berriari ekin aurretik.

Espero dut errutinarekin hasi behar garenok ahalik eta hobekien haustea eta jada errutinaren sartuta zaudeten guztiek animo eta eman gogor. Hurren arte irakurle maitea laster ikusiko dugu elkar berriro!





**Ametz Martinikorena Irazu**  
Irailaren 23an, 11 urte.  
*Ondo ondo pasa zure eguna Amets.  
Muxu bat Araitz, Aita eta amaren partez.*



**Maidar Balda**  
Irailak 29, 20 urte.  
**Haizea Aldaregia**  
Irailak 8, 2 urte.  
*Zorionak bioi eta muxu haundi bat  
etxeko guztien partez.*



**Jone Loidi Artola**  
Abuztuaren 30ean, 2 urte.  
*Zorionak eta urte askotako  
2 urte bete dituzulako!  
Muxu handi bat politte.*



**Elene Aguirrezabala Iriarte**  
Irailak 15, 5 urte.  
*Zorionak printzesa!! Ia 5 urte etxeko neskatila!!! Segi  
holako irribarre eta alaitasunakin!! Mila muxu pottolo  
aita, Danel, ama eta Arribeko familiaren partez.*

**Ugaitz Zubillaga Sasiain**  
Irailak 21, 9 urte.  
*Zorionak Ugaitz!! Ongi-ongi  
pasa zure egunean.  
Muxu haundi bat, aita,  
Aimar eta Aitzolen partez.*



**Ane Apezetxea Gabari**  
**Asier Apezetxea Zabaleta**  
Abuztuaren 24an, 6 eta 37 urte.  
*Zorionak politik!!!  
Oso ongi pasa zuen egunean  
eta musu erraldoi bat etxeko  
partetik... Muuuk! Asko maite  
zaituztegu!!!*



**Aratz Etxarri Zubeldia**  
Irailaren 23an, urte bat.  
*Zorionak Aratz!! Ongi pasa  
zure eguna.  
Muxu haundi bat etxeko  
partez!*



**Naiara Intxaurreondo**  
Abuztuak 6, 10 urte.  
*ZORIONAK, polita! Ongi pasa zure egunean,  
merezi duzu eta!  
Neska bikaina zara eta asko maite zaitugu!  
Muxu haundi bat familia guztiaren partez.*

Mailope aldzkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!  
Idatz iezaguzu [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) e-postara hilaren 20a baino lehen.

**Lagunasesoria S.L.**  
**Fiskala**  
**Laborala**  
**Kontabilitatea**  
**Seguruak...**

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232  
[lagunasesoria@terra.es](mailto:lagunasesoria@terra.es)

**SAN MIGUEL**  
gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099  
Arribe-Atallu

**German Lasarte**  
**HARATEGIA**  
Aralar kalea 9  
Lekunberri  
948504157

**OKM**  
**ABOKATUAK**  
Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua  
Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

## ILUNTZE MUSIKATUAK ARALAR KANPINEAN

Uztailean hainbat kontzertu antolatu zituzten Aralar Kanpinuean. Uda hon, *Hutsun* taldea txakun-birran ibili da eta gurean ere geldialdi bat egin zuen iluntze batean kontzertu bat eskaintzeko. Txalaparta doinu eta erritmo ezberdinekin hurbildu ziren entzuleak liluratu zituzten eta biharamunean, goizean birarekin jarraitu aurretik txalapartarekin agurtu zituzten. Baina ez da bertan izan den kontzertu bakarra, hilabete bukaeran *Animal Blues* taldeak bere jazz, soul eta blues musikarekin girotu baitzuen gaua.



## FRANKISMOKO IKURRAK DEUSEZTATUZ

Azkaraten, beste herri askotan bezala, herriaren sarreran dagoen lehendabiziko etxeak, frankismo garaiko murala zuen par. Udan zeramikaz egindako mural hori kendu eta berri jartzea erabaki zuen Kontzejuak eta dagoeneko bertan dago irudi berria.



## LARUNBATAK JARDUERAZ BLAI!

Aurten ere larunbatero lagunekin ekintza ezberdinak egiten gozatu nahi duzu?

Larraunen azken urteotan bezala, Larunblai programa eskainiko da D ereduko Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. maila bitarteko ikasleentzako. Bi hezitzaileen laguntzarekin mota guztietako ekintzak egiten dituzte partaideek, ateraldiak, tailerrak, jolasak... Helburua eskolatik kanpo haurren arteko harremanak euskaraz izatea da.

Saioak bi larunbatean behin izanen dira, Plazao-lako kirolgunean, arratsaldeko lauetatik zazpietara.

Urteko kuota 70 eurokoa izanen da eta izen emateko epea, irailaren 25etik 29ra bitarte irekiko da. Horretarako, izen emate orria udaleko Euskara Zerbitzuan bertan aurkeztu edo telefonoz deitu (948 50 44 00).





## HEMEN DA AZKEN MUGA EKIMENAREN JARRAIPENA

Joan den urteko arrakastaren ondotik, aurten-goan ere, modu xumeagoan bada ere, hainbat kultur ekitaldi antolatu dituzte Zaraten. Uztailaren 27an Iñigo Gorostazu eta Julio Soto bertsolarien saioarekin ireki zuten aurtengo Azken Muga kultur ekimena. Bertan izan ziren ere, *Muthiko Alaiak abesbatzakoak*, *Kautere Ballet* taldea, *Udaberri Fanfarrea* eta *Alaitz eta Mattie* trikitilariak. Hemendik urrira bitarte hainbat ekitaldi antolatzea aurreikusten dute. Urrian Iruñean eginen duten emanaldi batekin itxiko dute artea eta kultur diziplina ezberdinak Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko mugan biltzen dituen proiektua. Zaratetxeko borda astebururo zabalik egonen da hainbat artistek egindako lanez gozatzeko. Irailaren 16an bertso jaialdia izanen da.



## 250. ALEA AURPEGI BERRITUAREKIN OSPATU NAHI DUGU

2015ean, Mailope aldizkariaren 25. urteurrena ospatu genuen elkarrekin eta esku artean duzun hau, 250. alea da dagoeneko. Gure aldizkarian tarteka aldaketa txikiak eta berrikuntzak egiten ditugun arren, oraingoan, ikasturte berria diseinu berrituarekin hasi nahi izan dugu. Aldizkaria goitik behera berdiseinatu dugu eta zuen gustukoa izatea espero dugu!

## ERDI ARORA ATZERA

Herritarrak eta bisitariak Erdi Aroko garaian murgildu ziren joan den abuztuko lehen igandean. Lekunberrin jada urteko ospakizun garrantzitsuetako bat bihurtu da Erdi Aroko Azoka. Herritar asko garaiko jantziekin atara ohi dira kalera eta alde zaharrean antolatutako artisau azokaz gozaten dute. Goizeko hamarr txistulariek goiz-soinuarekin ireki zuten azoka eta goiz eta arratsalde tailerrak, dantzak, ikuskizunak eta bisita gidatuak izan ziren.



# Ikasturte berriari begira

Gogoan daukat oraindik ikasturte hasieran liburu berriak usaindu eta ukitzea. Uda bukatutakoan, askatasun baten garaia amaitzen zen, baina horren ordez liburu berrien oparia iristen zen. Ilusio handiz hartzen nituen eta mutur batetik bestera begiratu zer ekartzen zuten. Gustukoan izan nituen Natur Zientziak, Geografia eta Historia. Koloreak, argazkiak, irudiak... erakargarri egiten zitzaizkidan. Eta liburu berriekin batera nire buruari promesa batzuk egiten nizkion. Aurten bai, aurten egunero egingo ditut etxeko lanak, aurten hasieratik ikasiko ditut ikasgaiak, aurten dena txukun eta egunean eramango dut... Inori esaten ez banion ere, ez nuen aurreko urte bezala ibili nahi. Ikasturtea hasi, aurreko urteko lagunekin berriz elkartu, berriren bat ezagutu...

Ongi hasten nuen ikasturtea, ilusioz beterik. Baina ilusioa eta motibazioa laster bukatzen ziren. Niri jolastea eta ongi pasatzea gustatzen zitzaidan eta eskolaren arau zurrinak, zigorren mehatxuak, xantaiak eta manipulazioek azkar motibazioa galarazten ninduten. Ongi pasatzen saiatzen nintzen eta beti azken momenturako uzten nituen egin eta ikasi beharrekoak. Eguberri, Aste Santuan eta ikasturtearen amaieran ematen zizkiguten notak. Ikasturtearen zehar nota txarrak ateratzen nituen. Orduan, gurasoek "sermoia" botatzen zidaten eta zigorrekin mehatxatu, baina ikasturtearen bukarrako azterket gai izaten nintzen dena gainditzeko, esfortzu handia eginda azken esprintean. Egia esan, moti-

bazioa falta zitzaidan. Bost anai-arreba izanda, aita langilea eta ama beti etxeko lan, notak iristen ez ziren bitartean, etxean gutxi kezkatzen ziren gurasoak gure zailtasun edo arazoekin.

Egun, eskolan gauzak asko aldatu badira ere, beste asko antzera daude. Eskola askotan, eta zer esanik ez unibertsitate, oraindik orain azterketen metodologia da nagusi. Horrela lehiakortasuna eta individualismoa bultzatzen dira, besteak beste. Eta honen aurrean, ume zein gazte asko interesik gabe ematen dituzte ikasketen urteak.

Nola edo hala, lanbide baterako bidea ikastetik pasatzen da. Eta ikasteko, besteak beste, motibazioa behar da. Jakina, motibazioa gure gustu eta beharrekin lotzen da, baina baita

ikasteko erabiltzen den metodologiarekin. Beharren artean, laguntza dago. Duela urte batzuk, Ipar Amerikako mendebaldean egindako ikerketa handi batean, ikusi zuten Txina eta Japoniatik etorritako gazteek orokorrean bertakoek baino nota hobek lortzen zituztela. Sorpresa hartu zuten ikusi zutenean, ikasle hauek etxekoan laguntza izaten zutela gehien. Egunero, etxera itzultzean, familian batzen ziren eta gurasoak seme-alaben ondoan egoten ziren hauek etxeko lanak egiten zituzten bitartean.

Egon eta lagundu, gurasoak ikasketak gutxiokoak baziren ere. Familia batzen zenean, egunean zehar gertatutakoak aipatzen zituzten, gainera. Horrela, ikasleek gurasoak sentitzen zituzten ondoan eta ikasleen ikasketak familiaren ardura bilakatzen zen. Ondorioz, ikasle hauek besteak baino motibatuagoak agertzen ziren, ez ziren inoiz galduta edo bakarrik, ahaztuta, sentitzen. Gainera, etorkinak izanda, inguru arrotz baten aurrean, hobeto egiten zuten aurrera denak bat eginda. Umea edo gaztea ez zen inoiz bakarrik aurkitzen eta elkarlanean egiten zituen ikasketak. Jakina, garrantzitsuak ziren hasieran aipatu ditudanak, alegia, ikasketak egunean eramatea eta gustura egitea. Horrela, poliki-poliki, gazteak ikasten du ardurak hartzen eta ardura horiek betetzearen truke eskubideak irabazten. Zigorra eta saria erabili beharrean, motibazioa, laguntza, ardurak hartzea eta eskubideak neurri berean ematea, frogatu dira giltzarri direla gazteen garapenean.



Unsplash

# Belaunaldi berriaren sinbologia

Aspertu gara belaunaldi galdua gara aditzeaz. Bai, badakigu zer datorrigun gainera. Batzuen kudeaketa negargarriak ereindako haziak, guri jasotzea dagokigu. "Gehiegi prestaturiko" belaunaldia. Gu gara lan egin ordez ikasten jarraitu beharko dugunak. Edo, gainerakoan, lan prekario baten truke soldata eskas bat jasoko dugunak. Eta, noski, egoera hobetzeko ikasten jarraitu beharko dugunak, "titulu" deitutako paper zatiak lortzeko.

Gizarteak iluntasunean pentsatzen erakutsi digu. 90. hamarkadan jaio ginenok ezkontasun hitzaren inguruan eraiki behar dugu egunerokotasuna –eta geroa-. Ez al da tamalgarria hogeituroko gazte batek etorkizunaz mintzatzeko grisa edo beltza ez den beste kolorerik ez ezagutzea? Gizarteak kontsumista bihurtu gaitu, berekoi, indibidualista...

"Garai berriak", hori da guri jantzi zaigun leloa. "Garai berriko" seme-alabak gara, hemen eta orain. Ez dakit, oraindik ez ote gabiltzan horren esanahia asmatzen.

Gure belaunaldia irudikatzen duen sinboloak buruz galdetuta, batek baino gehiagok bat egiten genduen ideia nagusiekin. Lehenik eta behin, pantaila zaleak gara zalantzarik ez dago. Ezinbestez aipatu behar teknologiaren erreferentziaren bat gure belaunaldiaz hitz egiterakoan. Eragin zuzena du gure harreman sozial, gure identitatearen eraikuntzan... pentsatu nahi dut, ordea, arriskuak eta atzerapausoak ekar ditzakeen bezala, teknologiaren aroak ere badakartzala aukera franko. Gure



belaunaldiaren ispilu beltzak dira, pantaila itzaltzean besterik ez zaigu gelditzen.

Etiketa-jartzaile gara. Etiketa-jartzaile jaio gara. Jaio edo bihurtu? Pertsonak baino, zenbakiak gara; zenbakiak baino, etiketak. Trail bat (#) hitzaren aurrean jarritz, noski. Duela gutxiko burukomin handiena maitasun-harremanak etiketatzea

zen. Egun, horrekin gutxi ez, eta momentu bakoitza definituko duen hitz baten bila ibili behar dugu.

Bi hauen harira, ispiluaren analogiara bueltatu nahi dut. Geure buruari buruzko etiketak mirailari\* begira jartzen dizkiogu. (ikus miraila: geure irudia islatzen duen edozein objektu). Itxuraren morroi bizi gara, lehenbiziko uste eta aurreiritzien menpeko.

Bizkortasuna liteke gure belaunaldiaren beste ezaugarri edo sinboloetako bat. Abiaduraren aroan bizi gara. Sistema kapitalistak markatutako abiaduraren eraginpean. Azkarrago erosi behar dugu, azkarrago mugitu, komunikatu, erlazionatu, baita azkarrago informatu ere. Geroz eta zailagoa zaigu denboraren presioaren menpe ez dauden alorrak edo momentuak aurkitzea. Teknologia sekulako abiadan ari da garatzen; gizartea, baina, ez. Desoreka horrek sortu ditzakeen arazoak hausnartzea lanketa interesgarria izan liteke.

Egoera honek bultzatuta, egokitzen erraztasun handia dugula azpimarratuko nuke. Kanpora begira jarri gara asko –zakuan sartzen naiz-, bestelako etorkizun baten bila. Jakitun naiz; hein batean begirada ezkorra da. Hala ere, beste begi batzuekin ikusteko ahaleginak egiten ditugun eta hasieran beltza ikusten duen nuena, gaur, agian, urdin argi ikusten dut. Bihar, baliteke, gorri ikustea. Deitu asimilazio, deitu konformatzaile, deitu ezagutzeko-grin, deitu X. Edo, zergatik ez, deitu "gizarte-kameleoi".

# Montessori, askatasunean oinarritutako hezkuntza eredua

*Maria Tecla Artemisia Montessori, Maria Montessori izenez ezaguna, hezitzailea, pedagogoa, biologoa, antropologoa eta psikiatra izan zen. Gainera Medikuntzan lizentziatu zen lehen emakumezko italiarra izan zen. Berak defendatutako eredu pedagogikoak guztiz berritzaileak izan ziren eta izugarrizko inpaktua izan zuten XX. mendearen hasieran, baina gaur egun, oraindik ere, berritzaileak izaten jarraitzen dute.*



Edouard Séguin medikuaren material oinarrituz berak bereak sortu zituen.  
Arg: Sorgintxulo.

Adimen urritasuna zuten haurrekin lanean zebilela ohartu zen Maria Montessori, ume horiek garatzeke ziztuzten gaitasunak ziztuztela, nahiz eta mugatuak izan. Gizakiak aktibitatea behar duela ohartu zen, bere adimena eta nortasuna lantzeko beharra.

Montessoriren ustez, haurrak airtortza, errespetatua eta laguntza behar du, eta kexatzeko eta bere iritzia emateko duen eskubidea errespetatu behar zaio.

Buruko gaitzen erietxe hartan hasi zen bere filosofia praktikan jar-tzen. Edouard Séguin medikuaren material oinarrituz berak bereak sortu zituen. Ordura arte errotat ziztuzten haur haiek estatuko azterketa egitea lortu zuen eta gainontzeko haurren emaitza bertsuak atera ziztuzten. Orduan ohartu zen haur normalak garatzeke daudela.

1907an bere lehen ikastetxea ireki zuen Erroman, 60 haurrekin, *Casa dei Bambini*. Arauak jarri eta informazioa eman eta eman ibili beharrean, aske utzi zituen eta lau urterekin irakurtzen eta idazten ikasten zuten, modu naturalean. Ezagun egin ziren ikastetxean lortutako emaitzak eta liburuak idazten eta mundu osoan, hitzaldiak eskaintzen ibili zen.

#### **Montessori metodoaren oinarriak:**

- Haurren buruak izugarrizko gaitasuna du ezagutzak bere egiteko. Dena inkontzienteki ikasten dute, pixkanaka inkontzientetik kontzientera pasaz. Haurren ikasteko gaitasuna esponja batekin parekatu ohi



da, baina kasu hon xurgatzeko gaitasun hori mugagabea da.

- Badira iragankorrak diren momentu batzuk non haurrak erraztasun handiarekin gaitasun zehatz bat bereganatu dezakeen. Sentsibilitate handiko momentuak dira, non haurrak kanpoko munduarekin harreman jartzeko ahalmen handia duen.
- Haurrari bere garapen prozesuan laguntzeko ezinbestekoa da giro eta testuinguru egoki bat, bere heziketa prozesua erraztuko duena. Ordena eta segurtasuna behar dute. Argitasun handiko espazioak behar dute izan, goxoak, hizkuntza, landareak, artea, musika eta liburuak biltzen dituzten espazioak. Ordena ezinbestekoa da, orden fisikoak orden psikologikoa dakarrelako.
- Helduaren papera haurra gidatzea da, giro egoki eta eroso hori eskaini eta haurraren behatzailea izatea, bere heziketa eta garapen pertsonaleko prozesu hori gidari izatea. Haurraren zerbitzura egon behar du hezitzaileak. Benetako hezitzailea haurraren beharretara egokitzen dena da, eta ez aldearantziz.

Maria Montessorik jaiotzetik sei urte bitarteko adin tarteari ematen dio batez ere garrantzia. Eta bere metodoa, gerora beste adin tarte ere aplikatu den arren, batez ere zero eta sei urte bitartekoen heziketarako bideraturik dago. Bere ustez, sei urte-



Zero eta sei urte arteko etapan du gizakiak ikasteko gaitasunik handiena.  
Arg: Sorgintxulo.



Haurrek mundua zentzumenen bitartez ezagutzen dute.  
Arg: Sorgintxulo.

ko haur bat munduko hirien izenak, biderketak, zatiketak eta abar bereganatzeko gai da oroimena erabili gabe. Buruz ikasi beharrean, materialen manipulaziotik bereganatuko ditu kontzeptu horiek. Eta garrantzitsua da tarte hori ikastea, gaitasun hori geroz eta txikiagoa izanen delako adinean gora egin ahala.

Bestalde, lehen etapa hori, haurrek mundua zentzumenen bitartez ezagutzen dute, objektu berriak ikusi, esku ibili, dastatu eta usaindu egiten

dute. Haurrek zentzumenen bitartez ikasten dute eta horregatik Montessorik horretarako material bereziak sortu zituen.

Eskola tradizional ikasleei isilik eta geldirik egotea eskatzen zaie eta Montessoriren iritziz, askatasun falta horrek, ez die uzten barneko mundua behar bezala garatzen. Haurrek aske izan behar dute, inguruan dutena, ukitu, sentitu... Haurrei lan egiteko eta jarduteko askatasuna emaneko gero, bere kabuz ikasteko gaitasuna



Geroz eta ikastetxe gehiago dira Montessori eredu aplikatzen ari direnak. Arg: Labrit.

doren, Montessori metodoa aplikatzen zuten ikastetxe asko zabaldu ziren, Italian, Estatu Batu, Alemanian... Baina kritika gogorak ere jasan zituen eta gerora horietako batzuk itxi egin ziren. Gaur egun ordea, bizirik dagoen mugimendua da eta hazten ari da. Bere eredu erabiltzen duten 4.000 ikastetxe daude Estatu Batu, 2.000 Japonen, 200 Kanadan, 200 Europan eta horietatik 40 Frantzian.

Euskal Herrian ere geroz eta gehiago dira eredu horri oinarritutako zenbait kontzeptu praktikan jar-tzen hasten direnak. Leintz bailarako Arizmendi Ikastolan adibidez, orain dela zazpi urte eredu horri oinarriturik *Konfiantzaren Pedagogia* izeneko eredu sortu eta geroztik bertako ikasle eta irakasleak hezkuntza eredu horrekin dabilta lanean. Gero hasi ziren, Lekeitioko R.M. Azkue Ikastolan, Bergarako Aranzadi Ikastolan, Orioko Herri Ikastolan, Iruñerriko San Fermin Ikastolan, Tolosako Laskorain Ikastolan, Oñatiko Txantxiku Ikastolan, Usurbilgo Udaregi Ikastolan eta Leioako Betiko Ikastolan.

Gurean, Beteluko Sorgintxo Haur Eskolan dagoeneko horri dabilta eta joan den ikasturtean hasi ziren Montessori eredu oinarritutako hainbat material sortzen.

handitzen da, beti ere gainontzekoak molestatzen ez dituzten bitartean.

Gaur egungo hezkuntza eredu, haurrek porrotaren sentsazioa izaten dute maiz, gainontzekoen erritmoa jarraitzeko gai ez direnean. Montessori ereduak talde heterogeneoagoak proposatzen ditu, adin ezberdinetako haurrak gela berean jarritz, ikasleen estimulazioa handitzen delako eta norberaren erritmoa errespetatzen delako.

1907an lehen ikastetxea ireki on-

**TAXILON**  
Lontxo Otamendi Artola  
661 202 249  
(9 plaza)  
E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz

**SOTIL GARAJEA**  
BETELU  
948 513 007  
sotilgarajea@gmail.com

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA  
ARLOETAKO HORNIGAIK  
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**  
**URZUBI S.A.**  
Tel. 948 50 42 41 Lekunberri  
Fax 948 60 45 20 urzubi@hotmail.com

**GARAJZ**  
Zure behar eta ordutegira moldatuko gara  
ETORRI ETA INFORMAZIÓNA ZALTEZ!!!  
Mate erdi eta goi zikloetarako prestaketa  
Fisika inglesa  
lengua kimika  
marraketa teknikoak  
euskera historia  
unibertsitate mailako ikasgaiak  
948 504 450  
648253523

# “Konfiantza eta kontrola izaten laguntzen die”

## Montessori ereduaren zenbait praktika aplikatzen hasi zarete...

Joan den ikasturtean zehar materiala lortzen eta antolatzen ibili ondoren maiatza inguruan hasi ginen Montessori ereduko ekintzak egiten.

## Zeintzuk izan dira egin dituzuen aldaketak?

Hainbat bandeja egin ditugu, horretarako bereziki aukeratutako materialarekin eta hauekin hasi gara lanean. Aurrera begira gehiago sortzeko asmoa dugu eta pixkanaka materiala osatu eta lortuz goazen heinean ekintzak gehitzen joango gara. Materiala garestia denez, guk sortutakoa erabili dugu orain arte.

## Zergatik hartu zenuten erabaki hori? Zein onura ekar ditzakeela uste duzue?

Haur Eskolako helburua hezkuntza ahalik eta osoena eskaintzea da; hau da, hezkuntzak bere baitan hartzen dituen alor guztiak kontuan izanez haurren garapen integrala bultzatzea. Horretarako ezinbestekoa da arlo fisikoa, mentala eta emozionala lantzea besteak beste.

Haurra da bere ikasketa prozesuan protagonista nagusi eta eskolak, hezitzaileak, eskaintzen den materialak eta abar, ikaskuntza prozesu horr bere mundua zabaltzen laguntzen dio.

Zentzu horr, oso interesgarria iruditzen zitzaigun Montessori bezalako pedagogia edo filosofia batek eskaini dezakeena, hezkuntza ahalik eta osoena eskaintze bide horr. 0 eta 6 urte bitarteko etapan haurrak ikasteko gaitasun oso altua dauka, altuena, eta etapa oso garrantzitsua da.

## Zein erreakzio sumatu duzue haurren aldetik?

Harrera oso ona izan du haurren

artean. Helburua haurrari aukera eta bide berri bat eskaintzea zen eta gustura hartu dute oso. Atentzioa, kontzentratzeko gaitasuna, autonomia, autoestima, autodisiplina, naturarekiko harremana, alde emozionala eta ekintza libre lantzen dira bereziki eta honek euren buruarengan konfiantza eta kontrola izaten laguntzen die eta baita norberak dituen dohain eta gaitasunak lantzen ere.

## Gurasoei zer iruditu zaie?

Harrera ona izan du gurasoen artean ere.

## Hurrengo ikasturteari begira berrikuntza gehiago sartzeko asmoa duzue?

Hasi dugun bidea osatzen joan nahi genuke. Materiala lortu, osatu eta ekintza berriak edo zabalagoak eskaini. Filosofia ezberdinak hartzen ditugu aintzat, bakoitzak zerbait interesgarria eskaintzen digu eta Montessoriren bizitza filosofiak ere asko eskaini dezakeela uste dugu.

*Joan den ikasturtean hasi ziren Beteluko Sorgintxo Haur Eskolan Montessori ereduaren zenbait ereduarekin lanean. Hamar haur izan zituzten eskolan eta egun bi hezitzaile dabilta bertan, Garazi Mikeo eta Oihana Nieto.*



Garazi Mikeo eta Oihane Nieto hezitzaileak joan den maiatzean hasi ziren Sorgintxulorako materiala prestatzen.  
Arg: Sorgintxulo.

AZKARATE



ERRAZKIN



ARRIBE

AZPIROTZ



**Antzonia**  
BASERRIKO GAZTA

948 513 468  
www.antzonia.com  
Uztegi (Araitz)

**INFORMATIKA ARALAR**  
LEKUNBERRI - ARAITZ  
LARRAUN  
JALMENTA ETA KONPONTZER

634 551 743  
infoaralar@gmail.com

**AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA · HARATEGIA ·**  
**PATXI GALARZA**  
Astelehenetik larunbatera  
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00  
Igande eta jaiegunetan  
8:00 - 14:00  
Irurtzun

**SAN MIGUEL**  
Taberna-Jatetxea  
Arribe  
948 51 31 34

## Festaz festa

Eskualdeko hainbat herritan euren patrioiaren festak ospatu dituzte. Azkaraten, Arriben, Astitzen, Errazkinen, Azpirotzen, Oderitzen, Uztegin, Leza eta Gorritin jada behar bezala ospatu dituzte festak eta urtero bezala gu ere herriz herri ibili gara. Horra hor aurten bildutako zenbait irudi!

### LEZAETA



### UZTEGI



### GORRITI



## HELDUENTZAKO INGELESA

**BEHAR DUZUNA LORTU!**



INISHOUSE

**INISHOUSE ENGLISH CENTRE LEKUNBERRI**

A1etik C1erako mailak

Azterketetarako prestakuntza

Cambridge, EOI, TOEFL

Enpresentzako klase praktikoa eta zehatzak

Aurrez aurreko eta *online* klaseak

Aralar 45, Lekunberri · 948504164 · [www.inishouse.com](http://www.inishouse.com)

# “Eman dudana baina asko gehiago jaso dut”

*Garazi Martirena lekunberriarra uda hon Afrikan izan da, Malabon. Ginea Ekuatorialeko hiriburua izateaz gain, bertako hiririk zaharrena da. Gobernuz Kanpoko Erakunde baten bitartez boluntario lan aritu da bertan. SONAGE GKE nafarra da, Ginea Ekuatorialeko haur eta nerabeei laguntzeko lan egiten duena. Batez ere, ikastetxeak eta haurrak hartzeko egoitzak egokitzeaz arduratzen da.*

## Uda berezia izan duzu aurten Garazi... Non ibili zara?

Malabon (Ginea Ekuatorialen) ibili naiz, bertako umezurztegi batean. Hilabete pasa dut han.

## Zein da Malaboko herritarrek bizi duten errealitatea?

Afrika berez ez da lurralde pobrea, bere bizi baldintzek bultzatu dute horretara. Biztanleen erdia oso behartsua da. Ez dute behar duten adina janari, ezta urik ere, eta gose arazo larriak dituzte. Familia aurrera ateratzeko umeek ere lan egin behar dute oso txikitatik eta ez dute beraien haurtzaroa behar bezala pasatzen. Ordu asko pasatzen dituzte lanean, horietako askok baldintza oso txarr. Gehienak txabola moduko etxe bizi dira. Gaixotasun dezente izaten dituzte, gehienak higiene faltagatik sortutakoak.

## Nolatan animatu zinen?

Aspalditik pentsatua nuen noizbait Afrikara boluntario moduan joan

*“Familia aurrera ateratzeko umeek ere oso txikitatik lan egin behar dute”*

nahi nuela. Aurten informazioa bildu eta SONAGE Gobernuz Kanpoko Erakundearen bitartez animatu naiz. Sonagerekin kontaktuan jarri nintzen eta elkarizketa bat egin zidaten. Handik egun batzuetara boluntario gisa joateko hautatua izan nintzela jakinarazi zidaten. Hortik aurrera txertoak, bisa, programazioa... presatu genituen.

## Nolakoa izan da zure egunerokoa han?

Nire egunerokoa nahiko irekia zen. Gauza asko genituen egiteko. Goizeko lehenengo orduak jaioberriekin pasatzen nituen, bainatu, jantzi eta gosaria ematen. Ondoren 3 eta 12 urte arteko umeekin tailerrak eta jolasak egiten nituen. Bazkaltzeko txikienei bazkaria ematen laguntzen nien. Bazkal ostean, haurrak siestan zeudela aprobetxatuz, umezurztegian gauza ezberdinak egiten genituen. Hilabete hon adibidez, liburutegi bat eta informatika gela egin diegu, baita jaioberrien gela egokitu ere.

Arratsalde, 6 eta 20 urte bitartekoekin hirira ateratzen ginen paseotxo bat ematera, umezurtegitik pixka bat ateratzeko. Iluntzean, pelikulak jartzen genizkien eta batzu bertako patioan musika jarri eta dantzaldia antolatzen genuen. Ondoren, afaldu eta txikiak oheratzen genituen.



Malaboko umezurztegiko bi hurrekin.  
Arg: G. Martirena.

### **Zein izan da bizi izan duzun momenturik politena?**

Momentu polit asko bizi izan ditut, baina nik uste transmititzen duten maitasuna dela bizitako momenturik politena.

### **Eta gogorrena zer izan da?**

Zoritxarrez momentu gogorak ere bizi izan nituen. Adibidez, zaharrenek beraien esperientzia eta umezurtegiari sartu baino lehenagoko bizimodua kontatzen zidatenean edo beraien arazo eta kezken inguruan nire iritzia galdetzen zidatenean, momentu hunkigarri eta gogorak izaten ziren. Eta agurtzeko momentuak zer esan! Hori ere momentu gogorrenetako bat izan zen, egoera hori haurrak han utzi behar izatea...

### **Esperientzia aberasgarria izan da?**

Esperientzia ahaztezina izan da, dudarik gabe errepikatzeko modukoa. Gauza askorekin geratzen naiz, baina batez ere eman dudana baino askoz gehiago jaso dudala. Besarkada, muxu edo arreta eskaintzearekin bakarrik munduko irribarre handiena eskaintzen zizuten. Umezurtegiara iritsi nintzen momentua ez zait inoiz ahaztuko, haur haien begiradek transmititzen zuten maitasuna, ilusioa, desioa... Azaldu ezina da!



SONAGEn bitartez egin du bidaia.  
Arg: G. Martirena.

*“Agurra momentu gogorrenetako bat izan zen”*





## Hasi da Larraungo Pilota Goxua Txapelketa

Irailaren 2an hasiko da Larraungo Pilota Goxua Txapelketa. Bederatzi bikotek eman dute izena. Lehenengo eta bigarren mailako liga, eta kanporaketak jokatu dituzte finalaren aurretik. Partiduak, Larraun eta Lekunberriko frontoi izanen dira larunbat, arratsaldeko 16:00 hasita.

## Urriaren 1ean hasiko dira Kirol Mankomunitateko jarduerak

Kirol Mankomunitateak ikasturte berrirako kirol programa kaleratu du. Eskaintza berezia eskainiko du gainera irailaren 1etik 30era bitarte, bazkide egin berri diren horiek %100eko deskontua izanen dute sarrerako matrakulan. Gainera, irailaren 30ean ate irekiak izanen dira Plazaola kirolgunean. Egun horr jarduera ezberdinak ezagutu eta probatzeko aukera izanen dute bertaraten direnek eta giroa berotzeko musika eta paellada izanen da.

Kirol jarduera guztiak urriaren 1ean hasiko dira. Adin eta gustu guztientzako jarduerak eskainiko dituzte: igeriketa, kirol gimnasia, atletismoa, pilota, futbola. Zumba, yoga, herri kirola, eskubaloia... eta askoz gehiago.

Informazio gehiago:

[www.kirolmank.eus](http://www.kirolmank.eus)

Kirol Mankomunitatea: [kirolmankomunitatea@gmail.com](mailto:kirolmankomunitatea@gmail.com) | 948 60 45 45.

Plazaola Kirolgunea: [plazaolakkirolgunea@gmail.com](mailto:plazaolakkirolgunea@gmail.com) | 948 50 73 77.

## Aresoko Mendi Itzuliak 10 urte bete ditu

Irailaren 3an izanen da aurtengo Aresoko Mendi Itzulia. 10. edizioa izanen da gainera. 21 kilometroko ibilbidea egin beharko dute mendizaleek, Aresotik Ulizarrera, Urkitatik barna, Pagozelaiera, gero Guratzera eta berriro ere Aresora. 1.250 metroko desnibela du. Egunen bertan, proba hasi baino ordubete lehenago, Aresoko plazan izen-emateko aukera izanen da, 15 euroren truke. Bidean anoa-postuak izanen dituzte eta helmugan paella goxoa izanen dute zain indarberitzeko.

## Josetxo Urrutia txapeldun Nafarroako Harri-jasotze Txapelk

Joan den uztailaren 14an, Iruñeko Sanfermin Nafarroako txapela eskuratu zuen Josetxo Urrutia harri jasotzaileak. 5.250 kilo altxatu zituen guztira (20 altxaldi 125 kiloko zilindroari, 12 altxaldi 112,5 kiloko kubikoari eta 14 altxaldi 100 kiloko harri borobilarri). Xabier Ariztegi sailkatu zen bigarren 4.925 kilo altxatuz eta Alvaro Zugarrondo hirugarren, 4.100 kilorekin.

  
**CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.**  
 ZURGINTZA OROKORRA  
 INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI  
 Telefonoa eta Faxa: 948507343  
[carpinteria@carpinteriaazpiroz.com](mailto:carpinteria@carpinteriaazpiroz.com)

**OGI-BERRI ALTZA**  
 Aralar kalea, 41  
 Lekunberri  
  
**OGI BERRI**  
 OKIN ARTISAUAK 948604884

**AURRERA  
 TABERNA  
 ARALAR, 15  
 948 60 47 24**

**TAXI  
 SOROA  
 609 168 217  
 Bederatzi plaza**





## Irailaren 12an amaitzen da Plazaolako Maratoian eta Maratoi Erdian izen emateko aukera

Plazaolako Bide Berdearen II. Maratoia eta XI. Maratoi Erdia antolatu ditu Plazaola Partzuergo Turistikoak irailaren 17rako. 42 kilometrokoa izanen da lehena eta 26 kilometrokoa bigarrena.

Partzuergok iaz antolatu zuen lehen aldiz 42 kilometroko maratoia eta gutzira, 100 korrikalari iritsi ziren helmugara. Tartean Angel Soroa uitziarra. Mikel Rodriguez izan zen lehena gizonetzko eta Eva Esnaola emakumezko. Maratoi erdian berriz, eskualdeko lau korrikalarik amaitu zuten izazko proba.

Irailaren 12an amaituko da bi proba hori izen-emateko epea. Animatu eta eman izena lehenbailehen [www.maratonviasverdes.com](http://www.maratonviasverdes.com) atarian.



## Dena prest Intza-Ttutturre probarako

Irailaren 2an Intza-Ttutturre Kilometro Bertikala izanen da. Udan zehar auzolanean bidea ibilbidea eta bazterrak garbitzen ibili ondoren, antolatzaileek dena prest dute probaren egunerako.

Nafarroako Txapelketaren baitan antolatutako proba da, baina kirol jardueraz gain Intzan bertan festa-giroa izanen da. Dagoeneko 128 korrikalarik eman dute izena. Nafarroako Txapelketa izanik horietako gehienak nafarrak dira, baina badira Gipuzkoa, Bizkaia eta Zaragozatik etorriko diren korrikalariak ere.

### Larraungo AEK

#### EUSKARA IKASTAROAK

- Maila guztiak
- Guraso taldea 5/6 ordu astean
- EGA azterketa prestatzeko ikastaroa
- SAKONTZEN (arauak berrikusi, ahiko akatsak zuzendu...)
- Taldea edo autoikaskuntza

INFORMAZIADA ETA IZENA EMATEA  
948 60 47 04 edo 607 622 102  
[larraun@aek.eus](mailto:larraun@aek.eus)

Izena eman irailaren 27a baino lehen  
Artzonegi 6, Lekunberri

#### DIRU-LAGUNTZAK

Iparaldeko Euskara Mankomunitateak diruz lagundutako ikastaroak

**aek**  
euskara praktikoa

**% 100  
AFEKTIBOA**



# Hitzaspertuan



●● Agurtzane Altuna

## Iastorra

*Iraitz eta Garo, Tolosaldeko bi anai. Kuriosoa in zitzaiten esanahi bereko izena izatea biik, baño ezautu orduko ohartu nitzen izaeran etzuela koloreik ee; bat txurie eta bestea beltza. Bi anai hoon izenak goatuta, askotan pentsatu izan dot gauze bakar batek nola hartzen ditton sarri bi izen. Iraitz eta Garon koar-toan kaittuko litzuke hiruarren anai bat tolosarrak beharrean gutarrak balee. Bi ez, gutxinez hiru baitee guun herritan ia kontrolik bare hazten den landarea izendatzeko hitzek: iratzee, garoa ta iastorra.*

*Udazkena ate joka duu. Garoak eta sasip ontzen hasita dauden masustek ee emateigue horren berri. Jaio, bizi ta hil. Ernetu, ondu ta usteldu. Hasi dee natureko koloreak nahasten. Hasi a garoan berdea horitzen. Halai, eztau udazkenea etxoin beharrik hortaz jabetzeko. Ño!, ongi nekeza da euskaldunon agotan koloreak beextea:*

*Iastorra horitzen o gorritzen, begik marrona ikusten duenean. Bizarra o kalparra urdindu, grixe o zurie jartzen denean. Ume alu ile gorrie, kobre koloreko ilea donean. Haizea gorrie omen, hezurretaño sartzeala sentittu bai, baño iñork ikusi ezin don haizea denean; ikuseziñe baño gorrie. Eta ea zein atreittuko litzeken arraultzen gorringoa jaten, zartaiea bota ta egitan gorrie balitz. Kopeta beltza omen neskatoak, bate koloreik aldatu bare parean pasa ta aurea seitzeon. Ardi mutur beltzak, tira, baño, ardi mutur gorrik? Ba bai, gorrik! Behorak kime horik; pinttarrak, bezkarreak... kolore saltsa earra.*



*Ta baztarrak nahasten hasita garoa eta belarra ze itten dee ondu o usteldu? Zerbate berdea eote'a, eozin dela re bere jatorrizko kolorea, ondu barea daunen. Ta onduie usteltzea dien hue. Mizpirie eta gizakie, berriz, usteldutakoan ontze omen dee; hala dio esaerak. Ordun, usteltzea zer da ona o txarra?*

*Jaio, bizi ta hil. Ernetu, ondu ta usteldu. Jaiotzetik usteldu arte zertan aitzen gea, ontzen? Ontzea geo ta hobea izatea ote'a ba? O pixkeka-pixkeka usteltzen joatea. Iastorra bezalaxe, gu re zuritik beltzea bittarte hortan, osotaa usteldu arte ontzen goazen heiñean izan gattezela atzetik heldu deen mille kolore hoin oinarri ta ongarrri.*





Aplikazio hau Play Store (Android-en) edo App Store (iOS-en) jaitxi eta pauso simple batzuk jarraituta oso erraza da erabiltzen. Kantak estiloka, autoreka, karpetaka... aukeratzeko aukera ematen du eta baita playlist-ak egiteko aukera ere. Aurretik esan bezala, aplikazio hau Android, iOS eta Windows Phone plataform aurki dezakegu eta merezi du erabiltzen hasteak.

Xanti Saigos



Musixmatch musika erreproduzitzaile bat da eta mugikorrek dakarrena ordezkatzeko alternatiba bikaina! Baina honek ezaugarri bat dauka besteetatik bereizten duena: musika entzun bitartean, kantaren duena: partailan ikusgai dago. 12 milioi letra baino gehiago ditu gordeta eta baita 50 hizkuntzatik gora ere. Zeuk ere aukera daukazu gustuko kanta baten letra idazteko, oraindik ez baldin badago.



digitala  
smart  
bidali ikusi  
artekatu  
app  
download

## “Baso-lanetako enpresa pribatuei alfonbra gorria jartzen zaie”

Menditik ateratako egur loteen salmenta diru-iturri garrantzitsua da eskualdeko herri askotan. Baina onurak bezala kalteak ere eragiten ditu.

Joxe Mari Amundarainek 25 urte daramatza Atallun bizitzen. Kezkaturik dago herriko bideen egoera dela eta. Joxe Mari: “Basoa ateratzen

den bakoitzean herriari kalte dezente egiten zaio bere ondasun, baso-lanetako enpresei ez zaie kargu hartzen eta Kontzejuak ordaindu behar izaten ditu kalte horiek”. Arribe eta Atalluko Kontzejuko zenbait bideetako adibideak erakutsi dizkigu. Esaterako, Ubako eta Zataraineko bidean daudden pitzadurak eta zuloak.

Lazaro Goikoetxea Arribe-Atalluko azken lehendakariak azaldu-takoaren arabera, Kontzejuak tarteka basotik egur loteak ateratzen dituen arren, ez da diru-iturri garrantzitsuetako bat, gehiena pribatuek atera ohi dute.

Baso-lan horietako gehienak Gipuzkoako enpresa berak egiten ditu. Joxe Mari: “Bideak egoera tamalgarrian gelditzen dira. Herria izan beharko litzake lehen zeuden bezala uzteko eskatu beharko liokeena, baina herri txiki hau paso egiten da”.

Kamioiak behar baino karga gehiagorekin ibili ohi dira, ormigoizko pistak zartatu eta hautsi egiten dira

*“Baso-lanen ondoren bideak egoera tamalgarrian gelditzen dira”*



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean  
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta  
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO  
ELKANO  
S.L.**

**Industrialdea, 11**  
**31870 Lekunberri - Nafarroa**  
**Tel.- 948507319 Fax.- 948604792**  
[bacalaoselkano@jet.es](mailto:bacalaoselkano@jet.es)  
[www.bacalaoselkano.com](http://www.bacalaoselkano.com)

eta lurrezko bide berriz zulo handiak sortzen dituzte.

Joxe Mari: "Hemen kamioiak oso kargatuta jaisten dira, ia 30 tonarekin eta bide hau ehun aldiz pasaz gero, bidea hautsita gelditzen da. Diru-laguntzekin berritutako bideak erabat txikituta. Mendi-bide harri pixka batekin berdinu daiteke, baina ormigoizko bideak konpontzeak gastu handia dauka, askotan eskatu ohi zaien fidantzarekin ere ezingo litzateke ordaindu".

Ez da gai erraza, kontzejua, bere basoko egurretatik probetxua atera nahi duen herritarra eta enpresa pribatua. Hiruki horr, norberak bere interesei erreparatzen die. Kontzejuek dute euren bideen eskumena eta beraz, euren dagokie bide horien berritzea euren poltsikotik ordaintzea. Era berean, egurra atera nahi duen herritar pribatuari ez zaio interesatzen baldintza gehiegi jartzea enpresari, gastua garestitu egingo zaiolako. Enpresak berriz, ahalik eta joan-etorri gutxiago eginda eta gastu gutxienera

rekin lan eginez gero onura gehiago.

Lazaro Goikoetxea: "Enpresa pribatuei fidantza eskatu ohi zaie, baina lanak bukatutakoan egia da ez dela inolako baloraziorik egiten. Joan den hamabost urteotan egur asko atera da eta pista asko kaltetuta daude, batez ere Ubako bidea eta hori konpontzeko hainbat bilera egin ditugu dagoeneko, horr ari gara".

Arribe-Atallun duten arazoa ordea, eskualdeko edozein herritar aurki dezakegu. Joxe Mari: "Bideak diru publikoarekin ordaindu behar dira, baina kontzeju txiki hau ez dugu diru asko eta ditugun diru apurrak ezin ditugu hor gastatu, gaizki egindako gauza hori. Egurra atera behar bada baldintza batzuekin atera behar da eta behin lana bukatutakoan baloratu eta eskatu beharrekoa eskatu. Baina hemen baso-lanetako enpresa pribatuei alfonbra gorria jartzen zaie, ez zaielako inolako eragozpenik jartzen ezertarako".

**"Baso-lanetako enpresei ez zaie kargu hartzen eta Kontzejuak ordaindu behar izaten ditu kalte horiek"**

**M. Angeles Urrizalki**

**iragarkiak, berriak, eskalak...**

**Diario Vasco eta Diario de Navarrako Korresponsala**

**948513056  
699179437**



**Atabal**  
okindegia

Era askotako  
ogiak eta gozoak

Etkez etxe  
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...  
**948513151**

**MAITE**  
harategia



**BERTAKO HARAGIA**

Txistorra, txorizoa,  
saltxitxak,  
sukaldaturako platerak.  
Ettxera eramateko  
zerbiltua ere eskeintzen  
dizugu.  
Antigua Kalea N°7  
31890 BETELU

Telf: 948 51 30 88

maiteharategia@hotmail.com

### NAFARROAKO IPARRALDEKO EUSKARA MANKOMUNITATEA

2017/08/31

#### EUSKARA IKASLEENTZAKO DIRU LAGUNTZAK: OINARRIAK

**Xedea.** Oinarri hauen xedea Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak euskalduntzen edo alfabetatzen ari diren herritarrei diru laguntza ematea da.

**Eskabideak aurkezteko epea.** Eskabideak aurkezteko epea deialdia argitaratzen denetik 2017ko otsailaren 1etik irailaren 15era bitartekoa izango da.

**Aurkeztu beharreko dokumentazioa.** Eskatzaileek honako dokumentazioa aurkeztu behar du Nafarroako Iparraldeko Mankomunitateko erregistroan edo dagokien herriko Udaletxe edo Euskara zerbitzuan:

- Eskabide ofiziala beteta.
- Eskatzailearen nortasun agiriaren kopia.
- Erroldatze ziurtagiria.
- Euskaltegiak eginiko asistentziaren edo aprobetxamenduaren ziurtagiria.
- Matrikularen ordainagiria.
- Langabeek Seguritate Sozialak emandako bizitza laborala izeneko agiria edo SEPEk egindako ziurtagiria, euskara ikasten ibili diren tartean langabezian egon direla adierazten duena. Ez da langabeziaren txartelaren fotokopia ziurtagiritzat onartuko.
- Azkeneko ekitaldiari dagokion errentaren aitortpena egin behar ez zutela egiaztatzen duen Ogasun Departamentuko ziurtagiria edo matrikula egiteko garaian langabezian daudenaren ziurtagiria (diru-laguntzak aurreratzea eskatzen duten ikasleentzat soilik).
- Kontu korronte zenbakia

#### Baldintzak.

- Diru laguntza jasotzeko gutxieneko asistentzia edo aprobetxamendua % 80koa izango da.
- Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea osatzen duten herri erroldatua egotea.
- Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatearekiko zerga betebeharrak ordaindu-ta izatea.

IRAGARKI TAULA

## Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitaratekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com



948 85 32 79

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.

HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:

948 50 43 31

Lekunberri

edertasun zentroa

Lako beikoa  
Betelu 31890  
948 513 083  
696 732 290  
aitzberri@hotmail.com

## IRAILA

**02 | INTZA - KIROLA:**

Intza-Ttutturre Kilometro Bertikala

**03 | ARESO - KIROLA:**

Aresoko X. Mendi Itzulia

**17 | LEITZA - KULTURA:**

Taloaren Eguna Leitza.

**17 | LEKUNBERRI - KIROLA:**

Plazaolako Maratoia eta Maratoi Erdia.

**24 | LEKUNBERRI - KULTURA:**

Sagardoaren Eguna Lekunberrin

## AZKEN MUGA JAIALDIA - 2017

**16 | ZARATE / ALTZO:**

Zarateko lepoan eta eguraldi txarrarekin Altzon (Gipuzkoa).

Bertso eguna (Maialen Lujanbio, Alaia Martin, Julio Soto, Amets Arzallus eta Iñigo Gorostarzu) + "Ingurutxoaren inguruan" jaialdia + Ardo eta gazta dastaketa.

**17 | ZARATE / ATALLU:**

Zarateko lepoan eta eguraldi txarrarekin Atallun. Et Incarnatus Orkestra + Euskal pop-rock Izarrak: Alex Sardui, Petti, Izaro, Gorla Sarriegi, Niko Etxart. Zuzendaria Migel Zeberio.

**23 | ZARATE / AZKARATE:**

Zarateko lepoan eta eguraldi txarrarekin Azkaraten (Nafarroa).

JAZZARATE Jazz kontzertua + eskaintza literarioa. Jazzean, "Malos tiempos" taldea.

## SALGAI

- Lekunberrin 90 metro ka-rratuko etxe adosatua salgai, 3 logela, sukaldea, egongela, bi bainu, garajea eta terraza. 190.000 euro. Harremanetarako: 679 631 725 (Aitor).

- Volkswagen California Coach T4 salgai. 2.5Tdi 5 zilindroak 102cv. Nazionala. 340.000Km. Oso ongi zainduta, beti garagen. Extra askoekin (bizikletak eramateko euskarria, toldoa, aurreratze sistema, berogailu estatikoa, bihurgailua...).

Argazki eta informazio gehiagorako jarri zaitetz harreman-n: 630 041 480. .

## BESTERIK

- Pianoa jotzen hasi nahi baduzu, nire etxean, Lekunberrin, klaseak eskaintzen ditut. Anima zaitetz eta deitu 636 390 356 telefono zenbakira. (Luci).

Merkatu Txikian iragarki bat jarri nahi baduzu idatzi mailope@labrit.net-era.



# jai zoriontsuak!

## ALLIKO FESTAK

### IRAILAK 2, LARUNBATA

- 12:30 Suziria eta bermuta
- 14:00 Herri bazkaria
- 16:30 Mus txapelketa
- 17:00 Umeentzako eskulanak eta jokuak
- 18:00 Maksim magoaren emanaldia
- 19:00 Iñaki Perurenaren "Harriarekin Bakarrizk" emanaldia
- 21:00 Afari autogestionatua
- 23:30 Gaupasa DJ Bullekin

## UITZIKO PESTAK

### IRAILAK 28, OSTEGUNA

- 12:00 Txupinazoa
- 12:30 Poteoa musikaz alaitua
- 14:00 Gazte Bazkaria
- 17:00 Umeen jokuak
- 20:00 Dantzaldia

### IRAILAK 29, OSTIRALA (Mikel Donearen eguna)

- 10:00 Aurora
- 11:00 Meza Nagusia
- 12:00 Hamaiketakoa
- 13:00 Aizkolariak
- 16:00 Kafea eta pastak Merkualde elkartearen
- 17:30 Toka lehiaketa

- 20:30 Dantzaldia DJ Oixanirekin
- 22:00 Aparia Merkualde elkartearen
- 1:00 Dantzaldia DJ Oixanirekin

### IRAILAK 30, LARUNBATA

- 12:00 Mus txapelketa
- 14:00 Herri bazkaria Merkualde elkartearen
- 17:00 Umeen arteko Herri Kirolak
- 18:00 Herri Kirolak
- 20:00 Dantzaldia DJ Fran Barrosorekin
- 22:00 Aparia Merkualde elkartearen
- 1:00 Dantzaldia DJ Fran Barrosorekin

### URRIAK 1, IGANDEA

- 10:00 Diana txistulariekin
- 11:00 Umeen pilota partiduak
- 12:00 Espuma festa
- 16:00 Puzgarriak
- 18:30 Txokolatada
- 19:00 Dantzaldia DJ Oixanirekin
- 00:00 Denak lotara

## ETXARRIKO FESTAK

### IRAILAK 9, LARUNBATA

- 11:00 Suziria eta erronda buruhandiekin
- 14:00 Herriko bazkaria
- 17:00 Puzgarriak
- 17:30 Mus txapelketa
- 18:30 Plaza-dantza ORTZADAR taldearekin
- 20:00 Dantzaldia ZESUMA taldearekin
- 21:00 Barrikotea
- 23:00 Dantzaldia ZESUMA taldearekin Ondoren DJ OIXANI.

### IRAILAK 10, IGANDEA

- 11:30 Bordetara oinez
- 12:00 Erronda bord buruhandiekin
- 17:00 Puzgarriak
- 17:30 MAKSIM magoa
- 18:30 Umeentzako merendua

## BARAIBARKO FESTAK

### IRAILAK 29: OSTIRALA

- 10:00 Festa hasiera
- 11:00 Meza nagusia
- 12:00 Puzgarriak
- 12:30 Hamaiketakoa
- 13:30 Aizkolariak
- 16:30 Puzgarriak
- 17:00 Pilota partiduak
- 19:00 Dantzaldia Mendiberrirekin
- 20:00 Pintxo lehiaketa

### IRAILAK 30: LARUNBATA

- 10:00 Goiz soina txistulariekin
- 11:30 Puzgarriak eta umeen herri kirolak
- 14:00 Herri bazkaria
- 14:00 Dantzaldia Mendiberrirekin
- 17:00 Zezen mekanikoa: umeentzako ikuskizuna eta tailerrak
- 17:00 Puzgarriak
- 18:00 Mus txapelketaren hasiera
- 18:00 Umeentzako mus txapelketa
- 19:00 Txokolatada
- 20:30 Zezen suzkoa
- 24:00 Dantzaldia Mendiberrirekin
- 03:00 Txokolatada

### URRIAK 1 IGANDEA

- 10:30 Etxez etxeko erronda Amets Arzallus eta Aitor Mendiluze bertsolariarekin
- 12:00 Puzgarriak
- 17:00 Pilota partiduak
- 18:00 Mus txapelketa amaiera
- 18:00 Puzgarriak
- 19:00 Dantzaldia Mendiberrirekin
- 20:00 Zezen suzkoa